

**ORMAIZTEGIKO UDALEKO ADMINISTRARI PLAZA BETETZEKO HAUTAKETA  
PROZESUAREN EPAIMAHAIAREN 1. BILKURAKO AKTA**

**Eguna: 2024ko azaroaren 20a.**  
**Ordua: 09:00**  
**Tokia: Ormaiztegi Gizarte Etxea.**

**BERTARATUAK:**

Lehendakaria: Martin Iparragirre Mujika jauna

Bokalak:  
Miren Jasone Telleria Arrizabalaga andrea  
Amaia Arotzena Altuna andrea  
Gemma Sarasua Gaztelumendi andrea

Idazkaria: Miren Begoña Antxustegi Bengoetxea andrea

**LEHEN PUNTUA: EPAIMAHAIA ERATZEA.**

Epaimahaiaren lehendakaria, idazkaria eta bokal guztiak bertaratu direnez, eta beraz, gutxiengo quorum-a osatu denez, eratzat eman da.

Ondoren, idazkariak hitza hartu eta galdetu du ea abstentzio edo errefusatze kasuren batean dauden bertaratu diren kideak. Erantzuna ezezkoa izan da.

Deialdiaren ezaugarrien inguruko informazioa eman die idazkariak Mahaiko kideei eta dokumentazioa eskaini baina, kontuan izanik udal web orrialdean eskura dituztela deialdiaren oinarriak, onartuen zerrenda, lanpostuaren deskribapena eta abarrak ez zaie beharrezkoa iruditu.

Bilkurari hasiera eman zaio, honako gai zerrenda honen arabera:

- Azterketaren eta bere zuzenketaren nondik norakoak adostea
- Errekurtsoei erantzuteko irizpideak finkatzea
- Hurrengo bilkurarako data eta gai zerrenda zehaztea
- Erreguak eta galderak.

**BIGARREN PUNTUA: AZTERKETAREN ETA BERE ZUZENKETAREN NONDIK NORAKOAK ADOSTEA.**



Epaimahaikideek, goizeko 10:00etan oposaketa faseko lehen ariketa egingo dela kontuan harturik, haren nondik norakoan inguruan hausnartu dute eta eztabaida ireki da.

Hori horrela, eta eztabaida amaiturik, bozketari ekin zaio, eta batzordekide guztien aldeko botoarekin, epaimahaiak ahobatez zera

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Goizeko 10:00etan oposaketa faseko lehen ariketa egingo dela kontuan harturik, ariketaren lehen proba egiteko ordubete eta erdi ematea, zozketa egitea bi gai ateratzeko I. Eranskinetik eta horietatik bat garatu behar dutela adieraztea hautagaiei, eta lehen ariketaren bigarren proba egiteko beste ordubete eta erdi ematea, bi gai zozketa bidez ateratzea II. Eranskinetik eta bat garatzeko adieraztea hautagaiei.

**BIGARRENA.-** Zuzenketa egiteko irizpideak finkatzea. Mahaikide bakoitzaren ezagutza arloaren arabera sailkatu dira eginkizunak eta bilera deitu da azaroaren 27an, asteazkenean, goizeko 09:00etan Ormaiztegi Udaletxean elkartzeko, bakoitzak dakarren proposamena aztertu eta elkarrekin erabakitzeko.

Irizpideei dagokienean VI. Oinarrian adierazitakoak eman dira ontzat. Izan ere, honako hau jasotzen da VI. Oinarrian:

“1. ariketa: I. eta II. eranskinetan zerrendatutako gaiak buruzko ariketa teknikoak. Nahitaezkoa eta baztertzaila izangai guztientzat. Proba epaimahaiak ariketa hasi baino lehentxeago zehaztutako gai bat edo batzuk idatziz garatzea izango da, epaimahaiak zehazten duen denboran, deialdiaren eranskinean jasotako artean, nahiz eta eranskin horretako epigrafe zehatz bati lotuta ez egon. Izangaiek askatasun handia izango dute gai horiek azaltzeko.

1. ariketaren balorazioa. **Erakutsitako ezagutza-maila eta adierazteko gaitasuna eta argitasuna baloratuko dira.** Proba honetan gehienez ere hogeita bost (25) puntu lortu ahal izango dira, eta 12,50 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak automatikoki baztertuko dira.”

## **HIRUGARRENA: ERREKURTSOEI ERANTZUTOKO IRIZPIDEAK FINKATZEA.**

Helegite bakarra aurkeztu zaio onartuen eta baztertuen zerrendari, erreklamazioak gehiago izan diren arren, idazkariak epaimahaikideei jakinarazi dien arabera.

Harek azaldu duenez, Oinarriek ez dute aurreikusten eskariak subsanatzeko eperik eta izan dira hautagaiak 39/2025 Legeak 68. artikuluan aurreikusten duen aukera ezartzeko eskatu dutenak, epez kanpo beraien eskariak osatzeko.

Idazkariaren iritziz, aldiz, kontuan hartuta 68. artikulua Interesatuaren eskariz hasten den prozedurari (“Inicio del procedimiento a solicitud del interesado”) aplikatzen zaiola, prozedura honi ez bezala, eta deialdiaren Oinarriak direla Lege Enplegu Eskaintza



Publikoaren prozeduran, helegiteari ezetza ematea proposatzen dio Epaimahaiari eta eztabaida ireki da.

Mahaiko lehendakariak adierazi du onartuen eta baztertuen zerrenda Ormaiztegi Udalaren Alkatetzaren Ebazpenez onartu zenez, errekursoari ere Alkatetzaren Ebazpenez erantzun behar zaiola, eta ez Epaimahaiaren akordioz. Mahaiko idazkaria ados agertu da eta ez da aurkako iritzirik jaso. Ondorioz, errekursoaren erantzuna horrela bideratzea erabaki da.

### **LAUGARREN PUNTUA: HURRENGO BILKURARAKO DATA ETA GAI ZERRENDA ZEHAZTEA**

Epaimahaiaren hurrengo bilkura azaroaren 27an, asteazkenean, egingo da Udaletxeko Batzar Aretoan (Muxika egurastokia, 1) goizeko 9etan.

Gai zerrenda honako hau izango da, alegia:

1. Lehen ariketaren zuzenketa, balorazioa eta emaitzak argitaratzea.
2. Erreklamazioak aurkezteko hiru eguneko epea zabaltzea.
3. Bigarren ariketaren diseinua prestatzea eta lehen ariketa gainditu dutenei bigarren ariketa egiteko dei egitea, eguna eta lekua zehaztuta.
4. Epaimahaiaren hurrengo bilkuraren data eta gai zerrenda zehaztea.

### **BOSTGARREN PUNTUA: ERREGUAK ETA GALDERAK.**

Ez da inongo erregu edo galderarik aurkeztu.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, lehendakariak bilkura amaitutzat eman du, goizeko 09:55 orduak direnean, eta nik, idazkaria naizen honek, gertatutakoaren konstantzia gera dadin, akta hau luzatzen dut, bertan jasotakoa egiazko dela fede emanez.

Ormaiztegin, 2024ko azaroaren 27an.

Epaimahaiko lehendakariak

Epaimahaiko idazkariak

### **ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA**

